

## IDEIA LEHIAKETA

**Helburua:** urtero, uztailean, Legazpiko Udalak eskaintzen duen “Haurren uda ikastaroa” jarduerari izena jartzea.

### Onarriak

1. Edozein herritarrek har dezake parte baina dei berezia egiten diegu Haur Hezkuntzan (HH) eta Lehen Hezkuntzan (LH) seme-alabaren bat duten familiei parte har dezaten.
2. Izena erraza, erakargarria, dibertigarria, .... izango da eta, nola ez, euskaraz.
3. Gehienez ere, 3 izen proposatu ahalko dira pertsonako.
4. Euskara lantaldea izango da epaimahaia eta berak erabakiko du zein den izen irabazlea edo izen hori erabakitzeko prozedura.
5. Esteka honetan sartu eta bertan eskatzen diren datuak bete ondoren, proposamena/proposamenak idatzi. Atal guztiak bete eta gero, “bidali” sakatu eta proposatutako izena/k jasota geratuko da/dira.  
Esteka: <https://www.legazpi.eus/haurren-uda-ikastaroa-jarduerari-izena-jartzeko-lehiaketa>
6. Izenak proposatzeko epea: urtarrilaren 21etik otsailaren 4ra.
7. Aukeratutako izena proposatu duenak 50 €-ko erosketa-bonua eskuratuko du, herriko denda edo tabernetan erabiltzeko.
8. Aurrerantzean izen hori erabiliko da “Haurren uda ikastaroa” izendatzeko.
9. Hala ere, Epaimahaiaren iritziz izen aproposik jasotzen ez bada, saria eman gabe gera daiteke.